

«BAIONATIK BADOHA KORTSURAT»

“Le Dauphin” ontziko euskarazko gutunak: memoriaren kondentsadore, denboraren kapsula

 **HISTORIA** / Mikel ZUBIMENDI

EHuko Udako Ikas-taroetan beste kontu batzuk aditzera bertaratu nintzen eta txiripaz iritsi nintzen altxorra aurkitzera. Bestelako asmoa nuen, eta egia esanda, banatu zituzten eskuorriei eman nien lehen begiratuan antzik ere ez nion sumatu etortzear zegoenari. “Atlantikoaz haraindiko komunikazioa XVIII. mendean: Arrantza, gerra eta Euskal Herritik Kanadara bidalitako eskutitzak” zuen grazia. Baina historia hura aditzen hasi eta zeharo harrapatu ninduen, liluraren paralisi-raino, oharrak koadernoratze-ko ezgai. Izugarria iruditu baitzitzaidan, perla bat.

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) Politika Publikoetako eta Historia Ekonomikoko irakasle Xabier Lamikizen azalpenak argiak izan ziren, labur baina garapenerako aukera eskainiz, zoragarri. Agian, txiripa batekin hasi zelako dena berarentzat ere. Akaso, Londresen doktore tesiari hasiera eman zionean zoriaren kapritxoagatik egin zuelako topo kutxa harekin. Eta kutxa hark gordetzen zuen altxorrarekin.

ZAZPI URTEKO GERRA

Kutxa Londreseko The National Archives instituzioan zegoen, High Court of Admiralty atalean. Ehunka kutxa zeuden bertan, britainiarrek harrapatutako itsasontzien posta edo korrespondentziarekin, hartzaileengana inoiz iritsi ez ziren gutunekin. Ideia egiteko, zenbait zenbaki garrantzitsu eskaini zituen: 1652 eta 1815 bitartean, britainiarrek 35.000 itsasontzi harrapatu zituzten; harrapatutako agiriak 4.088

1757an Baionatik Kanadarako bidean “Le Dauphin” ontzia abiatu eta, egun berean, gerraontzi britainiarrek harrapatu zuten, haren posta barne. Tartean, euskarazko 52 gutun. Xabier Lamikizek aurkitu zituen Londresen. Altxorra memoriaren kondentsadorea da, garaiko Lapurdiko euskara eta gizartea ezagutzeko ispilu magikoa.

kutxatan daude; haien artean, 160.000 eskutitz, hemeretzi hizkuntzatan. Baina Lamikizek topatu zuen kutxa hark bazuen berezitasun bat: euskaraz idatzitako 52 eskutitz zeuden. Altxor bat, denboraren kapsula, memoriaren kondentsadoreak, filologo, hizkuntzalari eta euskararen historiagileen aurkikuntza berriarako atea.

Eskerrak eman nahi dizkiot Xabier Lamikizi, kontatu zuen historia gure irakurleekin kon-

partitu nahi izan nuela aipatu eta dena izan zelako erraztasuna, bihotz zabaltasuna. Denak eskaini zizkidan, argazkiak, hitzaldia bera idatzia, edozein zalantza argitzeko prestutasuna, dena. Eskertua, infinituki eskertua nago.

Oso data zehatzean kokatu gintuen Lamikizek: 1757ko apirilaren 9an. Baionatik “Le Dauphin” (Izurdea) ontzi kortsarioa abiatu zen Louisbourgera, orduko Île Royale eta egungo Cape Breton uharteko


Pierre Detchegarayk Catherine Gelosi igorritako gutuna, Azkaine, 1757ko martxoaren 22an. Xabier LAMIKIZ

portura, Kanada frantsesera. Baina garai petralak ziren haiek, Zazpi Urteko Gerrarekin (1756-1763) aski nahasia zegoe-lako Kanadako kostalde atlantikoan Frantziako Erresumak zuen egoera. Frantziako beste ehunka ontzirekin gertatu bezala, “Le Dauphin”-en bidaia egun hartan bukatu zen, Britainia Handiko hiru gerraontzirekin topo egin zuenean.

Halakoetan, britainiarrak, itsasontziaz eta haren kargaz gain, barruan zeramatzan agiri guztiak ere harrapatzen saiatzen ziren, posta barne. Ez zuten beti lortzen, askotan paper horiek itsasora botatzen baitzituzten harrapakinaren kapitai-nek edo ofizialek.

Kontua da harrapakina bera eta barruan zeraman guztia Ingalaterrara eramaten zituztela, eta han epaiketa egiten zutela Almirantegoaren Epaitegian. Epaiketa haietan erabakitzen zen harrapaketa legezkoa zen ala ez (hau da, itsasontzia etsaiarena zen ala ez, eta gerra hasi ondoren harrapatua). Etsaiarena bazen, orduan ontzia eta haren kargamentua enkantean saltzen zituzten, eta harrapatzaileek sari bat jasotzen zuten.

Eta zer gertatzen zen harrapatutako agiriarekin eta postarekin? Bada, gorde egiten zirela. Eta, egun, hor segitzen dute: The National Archives deritzon agiritegian. Lamikiz izan zen harrapatutako agiri eta eskutitzak erabiltzen hasi zen lehenengo ikerlarietako bat. Hainbat liburu eta lan argitaratu ditu horren inguruan. Besteak beste, Manu Padilla eta Xarles Videgainekin batera, 2015ean, “Lapurdum” aldizkariaren zenbaki berezi ba-





tean, “Le Dauphin”-en euskarazko eskutitzak aztertu eta argitaratu zituzten: “*Othoi çato etchera*” jarri zioten izenburu, hori baitzen eskutitzen igorleek behin eta berriro errepikatzen zuten mezua. “*Othoi çato etchera*”, mesedez zatoz etxera, itzul zaitez.

ONTZI «KORSUZALEA»

“Le Dauphin”-en bidaia ulergarri egiteko, euskaldunek bakailao arrantzan eta bale ehi-
zan egindakoa gogorarazi zigun Lamikizek, labur baina argi. XVI. mendean alturako arrantzaren loraldia izan zela euskal kostaldean. XVII. mendean, aldiz, ingelesak eta holandarrak nagusitu zirela Ipar Atlantikoan. XVIII. mendean hasieran, Utrechtoko Itunak britainiarren nagusigoa eta euskal arrantzaren gainbehera ekarri zituela.

Hala ere, Lapurdin egoera hobexeagoa izan zen, eta XVIII. mendean zehar alturako arrantzak berreskuratze apal bat bizi izan zuen. Île Royaleko portuak (Louisbourg eta Ingonish, esaterako) eta Ternuako Saint-Pierre eta Mikelune izan ziren lapurtarren arrantza portu nagusiak bake garaian. Baina gerra garaian, eta maki-
na bat gerra izan ziren XVIII. mendean, gure arrantzaleak

itsasontzi kortsarioetan en-
gaiatzen ziren. “Le Dauphin”
bera hori zen, ontzi kortsarioa,
edo euskarazko eskutitzek
dioten bezala, “korsuzalea”.

“Le Dauphin” Louisbourge-
rako bidean atera zenean, Zaz-
pi Urteko Gerraren bigarren
urtea zen. 60 tonako ontzia
zen, txiki samarra. Salgaiak ze-
ramatzan eta gerrarako presta-
tuta zegoen. Tripulazioa edo
eskifaia 34 gizonek osatzen zu-
ten, gehienak lapurtarrak eta
20-30 urte bitartekoak. Nola
jakin da hori guztia? Bada, bri-
tainiarrek harrapatu zituzten
paperengatik.

Eta zergatik Louisbourgera?
Bi arrazoi nagusi eman zituen
Lamikizek: bake garaian,
arrantza, eta, bestela, gerra.
Dena dela, arrantzaz gain, ba-
zeuden beste zeregin batzuk
ere Louisbourgen: bakailao ga-
zituaren prestakuntza eta es-
portazioa, Europako salgaien
inportazioa, eta gotorlekuko
ehunka soldaduen beharri-
nak asetzea. Beraz, Louisbour-
gen baziren artisauak eta mer-
katariak. 1752. urteko neguan
egindako erroldan, 199 arran-
tzale azaltzen dira; erdia eus-
kaldunak ziren.

LOUISBOURGERAKO ESKUTITZAK

“Le Dauphin”-en paperen ar-
tean, aipatu bezala, euskaraz

Goian, ezkerrean,
Nuestra Señora de
Covadonga
itsasontziaren
harrapaketa (1743ko
ekainak 22), Samuel
Scott maisuaren
margoan. Behean, “Le
Dauphin” itsasontziko
eskutitzen kutxa (The
National Archives, High
Court of Admiralty).
Xabier LAMIKIZ

idatzitako 52 eskutitz zeuden.
Lapurdiko 48 bizilagunek
Louisbourgen zeuden 45 per-
sonari idatziak. Eta jatorriari
dagokionez, Ahetze, Azkaine,
Baiona, Bidarte, Donibane
Lohizune, Getaria, Hazparne,
Hendaia, Sara, Senpere,
Urruña eta Ziburutik igorrita-
koak ziren.

Eskutitz horiek 35 emakume
eta 12 gizon lapurtarrek ida-

tziak izan ziren. Genero para-
metroari dagokionez, beraz,
emakumeen proportzio altua
nabarmentzekoa da: amek,
alabek, emazteek, arrebek es-
kutitzen %60tik gora sinatu
baitzituzten. Hartzaileak Eus-
kal Herritik Louisbourgera
joandako gizonetakoak ziren.
Gutun gehienak semeari, se-
narrari, anaiari edo adiskidea-
ri idatzitakoak ziren. Gehien




bat, herrira berriz itzultzeko desira erakusteko, herriko berriak emateko, heriotzak jakinarazteko, gerraren albisteak emateko, eta zerbait baimentzeko edo debekatzeko. Baita haserrea erakusteko ere, maiz penak eta estualdiak kontatzeko ere, edo kexua azaltzeko laguntza ekonomikoa ez bidaltzeagatik, “beste aldean” amodioak izateagatik edo erantzunik ez jasotzeagatik

Esan behar da, horiekin batera, frantsesez idatzitako beste 108 eskutitz ere harrapatu zituztela britainiarrek. Baina euskarazko eskutitzen bereizitasun bat azpimarratu zuen Lamikizek: guztiak idatzi intimoak zirela, eta, frantsesezkoak, aldiz, merkataritzari lotuago zeudela.

Zazpi Urteko Gerran zehar, hau da, 1756tik 1763ra, Baionatik 300 kortsu-ontzitik gora atera ziren. “Le Dauphin” haietako bat izanik, normala ere bada eskutitzetan itsaslapurretaren inguruko erreferentzia ugari aurkitzea. “Le Dauphin”-en kortsu-agiria ere –frantsesez *lettre de course*, ingelesez *letter of marque and reprisal*, gaztelaniaz *patente de corso*– ondo gorde da.


Adibide zenbait jartzeko, ondo dator gutun haiei begiratu azkar bat ematea. Adibidez, Saratik Martin Bordak bere seme Andrekori 1757ko martxoaren lehenean idatzi ziona:



“Anaia Guanes kortsuan dabil, hirugarren kanpainan gauda da; eta aita bera ere bigarrenean doha kortsurat, joite handi baten beldurrean. Berrogoi untzi Donibanetik eta Baionatik badoha kortsurat.” Zentzu berean, beste eskutitz batean argi esaten da: “Ezta hemen bertze negoziarik kortsua eta korsua baizik”.

Hona Mari Darburuk bere alaba Mari Harboureri 1757ko martxoaren 13an Donibane Lohizunetik bidalitako eskutitzaren testuaren hasiera: “Ene haur maitea estinat faltatu nahi hiri ene berijac marcatu gabe cenac eraten baitun estunala aspaldijon gure beriric ycatu”. Edo beste adibide hau, Sarako Miguel Harismendyk bere seme Bernardi 1757ko martxoaren 26an idatzia: “Ene

Ezkerrean, Maria Darburuk bere alaba Marie Harboureri idatzitako gutuna, Donibane Lohizuneko egina, 1757ko martxoaren 13an. Eskubian, “Le Dauphine” ontziaren eskifaiaren izenen zerrenda. Xabier LAMIKIZ



seme maitea. Badaquiçu bi urthe huntan ezdarotaçula ez biciçaren ez eta ere çure berriric batere eman; appariencias ahanxi çaitçu aita nauçula”

Lamikizek kontatu zigun, 2015ean eskutitzen bilduma argitaratu zutenean, uste sendoa zutela eskutitzen egileak herri xeheko kideak zirela. Baina gerora, Xabier Elosegiren ikerketa bikainari esker, jakin da klase ertain-altuko idazleak, edo, hobe, idazlariak ere bazeudela “Le Dauphin”-eko eskutitzen egileen artean. Izan ere, eskutitz asko ez ziren igorleak idatziak, hirugarren pertsona batek baizik. Notario-iturriak erabiliz, Elosegik zera aurkitu zuen: 41 igorleetatik hamar soilik zeudela alfabetatuta (hiru emakume eta zazpi gizon).

BEHETIK GORAKO BEGIRADA BERRIA
“Le Dauphin”-eko gutuneria euskararen historia ezagutzea posible egiten duen halako denbora kapsula bat dela nabarmendu zuen Lamikizek. Eskutitzetako euskararen ikerketak burutu dutenak eta egiten ari direnak filologoak eta hizkuntzalariak direla. Garai hartako Lapurdiko euskara jaso-

ren zein soilaren ezaugarriak ezagutzeko aukera ematen duela, baliabide baliotsua delako euskararen ortografia, lexikoa, estiloa eta bestelako ezaugarriak aztertzeko. Baita, bestalde, lapurtarrek idatzizko tradizio sendoa zutela egiaztatzeko ere.

Gogoratu behar da euskararen corpus historikoa nahiko berantiarra dela. Lehen testu luzeak XVI. mendekoak direla eta kasu gehienetan erlijioarekin lotura dutela. Horregatik, “Le Dauphin”-eko gutuneria oso aurkikuntza arraroa eta berezia da. Euskara lau ikuspegi edo dimentsiotatik aztertzeko aukera ematen duelako, beste iturriek ez bezala.

Dimentsio diastratikoa, ezberdintasun soziokulturalen erruz sortutako hizkuntza ezberdintasunak aztertzea posible egiten duena. Dimentsio diatopikoa, jatorri geografiko ezberdinei loturiko hizkuntza ezberdintasunak aztertzeko. Dimentsio diakronikoa, lapurtera euskalkiaren bilakaera historikoa aztertzeko balio duena. Eta, azkenik, dimentsio diglosikoa, zeren eskutitzek euskara-frantsesa diglosia hobeto ulertzeko aukera ematen baitute.

Bestalde, hein handi batean, jakina da euskarazko literatur tradizioa lapurteraren testu inprimatuen gainean eraiki dela, gehienbat erlijio testuetan oinarrituta. Bestelako testuen eskasia arintzera etorri zen Lamikizek aurkitutako altxorra, argia eman baitio herri xumearen epistolagintzari, oro har, XVII. mendeko lapurtarrek zuten euskaraz idazteko ohiturari. Eta hori gutxi ez, eta hizkuntzaren historiari beste begirada batekin hurbiltzea posible egin du, funtsezkoa, behetik gorakoa.